

noaua

Tximeleta gimnasia taldea:
“Pandemiak gure lan egiteko modua aldatu du”

Usurbilgo Kantu Taldea:
“Elkarrekin, bizipoza eraiki behar dugu herrian”



**Enpresa Ideia Onenaren lehiaketan
hirugarren saria eskuratu dute**

MAIATZAK 16, IGANDEA
19:00 SUTEGIN

Laburbira

Euskarazko film laburren XVIII. zirkuitua - 2021

SARRERA DOAN. Gonbidapena usurbilkultura.eus plataformaren bitartez hartu behar da.



ATERPEAN ATERI
Ruben Crespo



NIGANDIE
Imanol G. Gurrutxaga



GAME OVER
Iñaki Diaz Polanco



ILUNABARREAN ESAN
Xabier Vellina



BABARRUN TXAPELKETA
Aitor Díaz Polanco eta Iñaki Díaz Polanco



DATSEGIT
Aitor Arruti



NIRE EGUNEROKO MAITEA
Eduard Castagnet, Manex Fucha, Ximun Fucha



AGUR
Iñigo Azpiazu Oñaz



**EZAGUTU
LABURMETRAIAK**



noaua

BAZKIDEEN TXOKOA



**Maiatzak 15
larunbata,
20.00tan Sutegin**

**"Basabi" eta "Kimu"
taldeen kontzertua.**

noaua! euskararen aterpe

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu maiatzaren 13an

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / eukartea@noaua.eus

Albisteak iruditan

Pintada iraingarriak Zubietan



Ekintza hauek “helburu argia dute, gure familia herritik bidaltzea, kanpotarrak garelako”. Halaxe salatu du Unai Agirrek ohar baten bidez.

“Duela urte batzuk jazarpena jasaten ari den familia gara, bi semeekin”. Unai Agirrek bidali dizkigu argazkiok. Duela bi aste *Unai junai txibato polizia* pintadak agertu ziren bere etxe inguruan. Pasa den asteburuan, berriz, “gure koxean txibato eta inguruko paretetan *Unai junai txibato polizia* pintadak”.

Ekintza hauek “helburu argia dute,

gure familia herritik bidaltzea, kanpotarrak garelako”, dio Unai NOAUA!ra igorri duen salaketa publikoan. “2015ean etxea erosi eta Yoko Garbi elkarrearen zaratarekin kexatu ginenetik ez da gelditu jazarpena. Pintadak, pankartak eta abar jasan ditugu, eta elkarretaratzeak etxe aurrean *Que se vayan* abesten, *Unai entzun pin-pan pun*, eta abar. Mugimen-

du faxista eta xenofobo honen ekintza salatu nahi dugu. Guregatik baino, gure semeengatik”.

Azken asteotan familia honek jasan behar izan duena ez da gauza isolatua. Duela urtebete inguru, euren etxeako atearen kontra botilak jaurti zituzten eta horren salaketa ere hedabide honetan egin zuten.

Laburrean

Oraindik eremu gorrian da Usurbil

Alarma egoera desaktibatua dagoen arren, eremu gorrian segitzen dugu. Aste hasieran, Covid-19ak 100.000 biztanleko 14 eguneko 697,53 intzidentzia zuen udalerri honetan. Maiatzeko lehen 9 egunetan, 25 kasu atzeman dira.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen biltzea berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. “PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik”, eskatzen du Udalak.

Errigoraren produktuak NOAUA!n

Eskari kopuruan marka guztiak hautsi dituen Errigoraren kanpainako produktuak heldu dira NOAUA! Kultur Elkarrearen egoitzara. Bertan eskura ditzakezue iragan martxoan eskatu zenituzten elikagaiak.

noaUA

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noaueus ||| www.noaueus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Ariz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaueus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaueus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Igerilariak basamortuan

Imajinatu ama sei urteko semeari galtza luzeak janzteko esaten, hotza egiten duela eta euria iragarri dutela azpimarratuz. Aita, berriz, beste aldetik, galtza motzak janzteko esanez, ez duela hainbesteko hotzik egiten eta mugitzen bada ez duela hotzik pasako esanez. Zer egingo du umeak?

Imajinatu irakasle bat gelan sartu eta ikasleei leihoak irekitzeko eskatzen. Imajinatu ordubeteko saioaren ondoren beste irakasle bat gelara sartu eta leihoak itxeko eskatzen. Zer egin behar dute ikasleek?

Irudikatu pertsona heldu bat hipermerkatu handi batean erosketak egiten. Pasilloen artean atzera eta aurrera arroza aurkitu ezinik dabil. Hipermerkatuko langile bati galdetzen dio arroza zein pasillotan dagoen eta aurrera segi eta hirugarrenean topatuko duela esaten dio. Hara iritsi eta irina ikusten du, makarroiak ere bai, fideoak ere bai... Baina arrozik ez. Beste langile batengana zuzentzen da galdera bera egitera eta bi pasillo aurrerago bidaltzen du. Hara iritsi, ezker-eskuin begiratu eta arrozik ez du ikusten. Nora jo behar du?

Pentsa korrika dabilen



"Nahasmen honetan, hobe gure sena eta zentzua berreskuratzea. Bestela, Morauk abesten duen bezala, igerilariak izango gara basamortuan".

AINHOA AZPIROTZ

"Zer egin behar du umeak? Nora jo behar du hipermerkatuan galdutakoak? Eta aparkatu nahi duenak? Zer egin? Nori egin kasu? Noiz da posible? Noiz ez? Azkenean, denak noraezean, pandemia honetan bezala"

gazte batek orkatila okertzen duela eta lagun batek izotza jartzeko esaten diola, berari hori pasa zitzaionean masajistak hala esan ziola. Bitartean, beste lagun batek Google-n begiratzen du eta hotza ez, beroa dela ona jartzen duela esaten dio. Hotza ala beroa? Beroa ala hotza? Zer egin? Nori egin kasu?

Imajinatu usurbildar bat Groseko anbulatorioan. Plaka batzuk ateratzeko bolantea eskuetan duela, han jartzen duen pisura igotzen da, baina egokitzen zaion medikuaren izenik ez du topatzen pasilloko inongo aterren ondoan. Pisu horretako harrerara joan eta galdetzen duenean, mediku hori jada jubilatuta dagoela esaten diote. Horren ordezt dagoen medikuaren izena ematen diote, baina mediku horrek ez omen du egun horretan lan egiten. Beraz, beste egun baterako hitzordua ematen diote eta eskaileretan behera abiatzen da.

Irudikatu hiri batean TAOkoa etorri eta leku horretan ezin dela aparkatu esaten; aurrerago joan eta hurrengo kalean aparkatu daitekeela esaten. Eta han aparkatu ondoren, udaltzaina kargu

hartzera etortzen, leku horretan ordu horretan jada ezin dela aparkatu esaten; goizeko 9:00etatik 13:30era bai, 13:30etik 15:00etara ez, 15:00etatik 20:00etara bai, baina asteartetan eta ostegunetan 19:30 arte, ostegunetan ez merkatua dagoelako eta astelehen, asteazken eta ostiraletan ordubete baino gehiago ez. Orduan, noiz da posible? Eta noiz ez?

Denak noraezean. Inork ez daki gauza bakoitza non dagoen, une bakoitzean nora jo behar den, momentu horretan zer komeni den, galdera horien erantzuna nork emango duen. Eta azkenean, denak galduta. Besteen erantzunaren zain egon ondoren, nork bere sena edo zentzua galduta. Hasieratik senari kasu egin da, hobe leudeke denak.

Horixe bera gertatzen ari zaigu pandemia honen kudeaketak ekarri digunarekin. Emandako arauak, gomendioak edo dena delakoak ez digute bide argirik erakusten, ez dituzte gure galderak erantzuten, eta are gehiago, nahastu egiten gaituzte. Hobe gure sena eta zentzua berreskuratzea. Bestela, Morauk abesten duen bezala, igerilariak izango gara basamortuan.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Martxan da OinHerri herri hezitzailearen Usurbilgo taldea

Udarregi ikastolako haur hezkuntzako ikasleek Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek Usurbilgo herriari oparitutako zuhaitza landatu zuten asteazkenean, hilaren 6an, hilerri zaharrean. Modu horretara, herriko eragileek haurrekin doluaren gaia lantzea dute helburu, eta gainera, herritarrek utzi dituzten senitartekoak eta lagunak oroitzeko eta beraiekin bizi izandako uneak gogoratzeko toki bat izatea. Datozen asteetan, Aginagan eta Zubietan berdina egingo dute, eskola txikietako ikasleekin.

Zuhaitzaren landaketa Usurbilgo OinHerri taldearen lehenengo ekintza izan zen. Udalak bideratutako talde horretan herriko hainbat eragile ari dira parte hartzen: NOAUA, Udarregi, Aginagako eskola txikia, Zubietako eskola txikia, Gaztelekua eta Ziortza. Taldearen jarduna hasteko aukeratu zuten ekintza hori izan zen, hain



Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Usurbilgo herriari oparitutako zuhaitza landatu zuten asteazkenean, hilaren 6an, hilerri zaharrean.

UDAL-GOBERNUA

“Zuhaitzaren landaketa Usurbilgo OinHerri taldearen lehenengo ekintza izan zen”

zuzen: iaz Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek “Amaren intxaurrak” ikuskizunean Usurbilgo herriari oparitutako zuhaitza landatzea.

Iazko otsaileko osoko bilkuran onartu zuten Usurbil OinHerri sare hezitzailearen parte

izatea, eta ekainean sinatu zuten udalaren eta OinHerriren arteko hitzarmena. Herri hezitzaileen sareko herrien arteko esperientzien trukea ahalbidetzen du Oinherrik, eta tokian tokiko eragileen arteko sinergiak bilatzen ditu. Berez, iaz sortu zuten taldea, baina osasun krisiak zaildu egin zuen lanean hastea. Jada martxa hartua dute, ordea, eta ekainean aurkeztuko dute taldea eta emango dituzten hurrengo pausoak.

Ate Irekiak Usurbilgo Lanbide Eskolan

Maiatzak 12, asteazkena

16:00-17:30 Erdi Maila.

17:30-19:00 Goi Maila.

Maiatzak 15, larunbata

10:00-11:30 Erdi Maila.

11:30-13:00 Goi Maila.

Izen ematea: lhusurbil.eus

943 364 600

adkomunikazioa@lhusurbil.eus



Ate irekien jardunaldietan parte hartzeko izena eman behar da aldez aurretik.

Bertako sendabelarrei buruzko tailerra

Santuenea Elkarteak antolatutako tailerra maiatzaren 21ean eta 28an izango da, 18:00-20:00 artean auzotarraren bilguneak Santuenea 12a helbidean duen egoitzan. “Tailerra teorikoa eta praktikoa iznago da”, iragarri dute. Inguruko, gertuko sendabelarrez ariko dira; ezaugarriak, nola erabili... alderdi guztiok aztertuko dituzte. Izen ematea aurrez bidera daiteke 670 027 731 telefono zenbakira deituta.

Jai egun berri bat 2022ko lan-egutegian

Eusko Jaurilaritzaren Kontseiluak 2022ko lan-egutegia onartu du. Urteroko festa egunez gain berri bat eranstea erabaki du Gasteizko gobernuak; irailaren 6a, igandez egokituko den abenduaren 25aren ordez. Irailaren 6a Elkano Eguna izendatu du Jaurilaritzak. Hemen 2022ko jai egunen egutegia (udalerrri eta Gipuzkoa mailako bi jai egunak zehaztea falta da):

2022ko jai egunen egutegia

- Urtarrila: 1, 6.
- Apirila: 14, 15, 18.
- Uztaila: 25.
- Abuztua: 15.
- Iraila: 6.
- Urria: 12.
- Azaroa: 1
- Abendua: 6, 8.



Zaintza, guztion lana

Nola zaindu nahi dugu? Nola izan nahi dugu zainduak? Konplexutasun handiko gaia zalantzarik gabe, korapilo askokoa, Usurbilgo Udalak eta Elhuyarrek apirilaren 21ean Sutegin antolatu zuten hitzaldian agerian utzi zuten. Herriarren artean zientziaren ezagutza zabaltzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko asteotarako iragarri duten “Elhuyar Solasaldiak” zikloaren baitan, kultur etxeko auditoriora erakarritako ikus-entzuleen nahiz online bidez zuzenean jarraitu zuten artean berebiziko interesa piztu zuen “Covid-19aren osteko zaintzaren demokratizazioa” solasaldiak.

Bi hizlari batu zituen hitzorduak. Biak ala biak zaintza eredu iraultzeko lanetan dihardutenak, ezagutza eta esperientzia zabala dutenak. Hurbileko bi egitasmoetan lanean dihardute; Miren Aranguren Etxarte Emagin ikerketa eta dokumentazio zentro feminista formatzailea eta ikerlaria da. Emaginek Beterri-Buruntzako udaletako berdintasun nahiz enplegu teknikariek, elkarte feminista edota arrazakeriaren kontrakoekin Foro Feminista osatu eta eskualdeko zaintza erregimenaren diagno-



“Zaurgarriak gara eta elkarren mendekoak”, gogorarazi zuen Miren Aranguren, Emagin elkartearen kideak.

MIREN ARANGUREN

Emagin elkartearen kidearen esanetan, zaintza lanek aitortza behar dute, aitortza sozial eta politikoa

sia eta ekintza plana diseinatu dute. Lan hau izan zuen hizpide. Maite Sancho Castiello psikologoa, plangintza gerontologikoan aditua, Espainiako Geriatria eta Gerontologia Sozietateko batzorde teknikoko kidea izandakoa, Matia

Institutu Gerontologikoarekin ari da lanean. Ondo baino hobeto ezagutzen du Kalezarren eraikitzen ari diren adinekoen auzune berria, proiektu honekin zeharo inplikaturik baitago.

“Badira nor zaintza aritzea, esparru ezberdinetan ari badira ere, bakoitzak badu nahikoa ezagutza, eskarmentu eta esperientzia zaintzaren arloaz jarduteko nor bere ikuspegi eta begiradatik”, Agurtzane Solaberrieta alkateak bi hizlariak aurkezterako unean nabarmendu zuenez. Zain-

tzaren bueltan herrian sustatu asmo duten parte hartze prozesuaren “marko kontzeptuala, edukiak, mamia lantzen hasteko” ezin solasaldi egokiagozat jo zuen Sutegikoa, “ikuspegi komunitario, feminista, antirrazista, eta pertsona ardatz izango duen eredu berri bat eraiki nahi badugu”.

Bada zer aldatua

Izenburuak argi dioten moduan, zaintza lanen demokratizazioaz aritu ziren, hitz gutxitan, denok gai honetan dugun arduraz, zereginaz. Bada eta zer aldatua, hobetua.

Hiru “fikzio” desmuntatzeko beharra ikusten du Miren Aranguren: ikusgarritasuna edota prestigioa izan eta gizonen nagusi diren eremu publikoaren eta ikusezina, diskriminatzailea den eremu pribatuaren arteko bereizketa; lana eta enpleguaren berdinketa; eta langile independenteak, autonomoak garenaren “fikzioa”. “Zaurgarriak gara eta elkarren mendekoak”, gogorarazi zuen Aranguren.

Emagin elkartearen kidearen esanetan, zaintza lanek aitortza behar dute, aitortza sozial eta politikoa, egun ez dagoen lanon banaketa justua eta zainzaileen lan eta bizi baldintzak duintzea.

“Familiengan delegatzen da zaintza lana”

Beharrezkotzat jotzen dute zaintza eredu aldatzen joatea, bizi dugun pandemiak azalerazi duen moduan. Zaintza krisian dela ohartarazten zuen Aranguren. “Ez dira beharrak asetzen”. Zerbitzu sozial familiar eskasa dugula dio, “familiengan delegatzen da zaintza lana”. Mendekotasunak, zaintza in-

tentsiboek gorantz egin duten arren, zaintzale potentzialak murrizten doaz. “Emakumeek bermatzen dituzte zaintza lanak”.

Honenbestez aurrera begirako erronka marraztua dago, “nola aldatu hau bidegabekia izan ez dadin”, Aranguren esanetan, zer eta nola egin, “genero zapalkuntza eta arrazakeria”

sakontzen segi gabe. Argi baita orain arte, etxeko eta zaintza lanak, “doakoak eta ikusezina”, emakumeen kargu egon izan direla. Migranteen esku sarritan. Baldintza ez duinetan aritzen dira, erabat lan prekarizatueta; lan harreman oso zailetan, guztiz desprestigiatutako eta bortizkeria edota gehiegikeria sexualak ematen

diren sektorean.

“Zaintza orduetan zenbat lan egiten den neurtzea oso zaila da”. Zaintza zuzena baitago, pertsona baten edo batzuen zaintza, baina zeregin horretan beste hainbat lan gurutzatzen baitira, “zaintza ez zuzena” litzatekeena, Aranguren Sutegin agerian utzi nahi izan zuenez.

“Zaintzarik gabe, ez dago bizitzarik”

Ido beretik, Arangurenek gaineratzen zuenez, zaintza lanak “gutako bakoitzak modu unibertsalean izan behar ditu eskuragarri, baina gutako bakoitzaren beharretara egokituta”. Garai batean baino prozesu “luzeagoak eta konplexuagoak” dira zaintza lanak, Maite Sanchoren esanetan. “Inor soberan” egongo ez den eredu koordinatu bat beharrezkotzat jotzen du.

Abiapuntu argia izango duena, “pertsonen etxean bizitzeko nahia” kontuan hartuko duena, orohar, egungo eredutik “pertsonen borondatean arreta jarriko duen” eredu baterantz biratzea. Hortxe kokatzen du Matiako kideak, Kalezarren eraikitzen ari diren adinekoen auzunearekin egina duten apustua. “Bere inguruan duintasunez bizitzea” ahalbidetuko diena. “Etxebizitza” kontzeptua errealitate bilakatuko duen egitasmoa ari dira eraikitzen, “etxean bezala bizitzeko”. Proiektuaren “erdigunean pertsonak, arreta pertsonengan jarria izango da”.



Garai batean baino prozesu “luzeagoak eta konplexuagoak” dira zaintza lanak, Maite Sanchoren esanetan.

MAITE SANCHO

“Balioa eman diezaiozun bizitzako oinarritzko zereginetako bati. Zaintzarik gabe ez dago bizitzarik”

Zaindua izateko beharra duenaren eta zaintzaileengan. “Goazen balorea ematera bizitzako oinarritzko zereginetako bati. Zaintzarik gabe ez dago bizitzarik”. Zainketa lana pres-

tigiatu, zaintzaileen baldintzak duintzeko erronka gisa planteatzen zuen, lanok emakumeen eta migranteen eremutik ateratzea. Formazioa sustatzea giltzarria dela dio, “zenbat eta formazio hobea, ordainsaria” ere parekideagoa izan daiteke sektore honetako emakumezko eta gizonezko langileen artean. Formazioaren barne txertatzen ditu, ez soilik laguntza fisikorako beharrezko ezagutza eta trebetasunak ikastea, komunikazio eta emozio trebetasunak

ere bai besteak beste.

“Askoz gehiago egin dezakegu modu artikulatuan”

Argi utzi zuten, egungo zaintza ereduaren ezingo da egun batetik bestera irauli, baina bidea jorratzen hasi gaitezke. “Aldaketarako palanka” garrantzitsutzat jo zuen Aranguren. Aurrera begirako erronka, eta lan hauetan denok, gutako bakoitza, norbanako gisa nahiz, taldeak, elkarteak, eragileak, administrazioa... kide gaituen komunitatea inplikatzeko. “Komunitatea ez gara artikulatzen ari. Askoz gehiago egin dezakegu modu artikulatuan”.

Emaginek eginiko lanketaren emaitza dokumentu batean jasoa dute. “Zaintza lanen demokratizaziorantz. Beterri Buruntzaldeko zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamena, 2020” txostena emagin.eus atarian irakur dezakezue. Sute-giko hitzaldia aldiz, streaming bidez online eskaini zuten, usurbilkultura.eus atarian ikus dezakezue.

“Elhuyar Solasaldiak” azken txanpan

Maiatzak 12, asteazkena

■ 18:30 Sute-gin: “Adimen artifiziala hizkuntza: nola eman ikuspegi soziala”.

■ Hizlariak: Xabier Arregi Iparragirre eta Xabier Saralegi Urizar.

■ Xehetasunak: Covid-19ak eragindako pandemiak gizar-tearen zenbait alorretan nola eragin duen gizar-teratzeko xedez, Elhuyar Solasaldiak hitzaldi-zikloa antolatu dute, elkarlanean, Usurbilgo Udalak eta Elhuyarrek. Bost

solasaldi, Covid19-aren testuingurua, zaintza, pentsamendu kritikoa, ekonomia-aren eraikuntza ekologikoa eta adimen artifiziala hizkuntza solasgai hartuta.

■ Izen-ematea: usurbilkultura.eus

Online:

usurbilkultura.eus eta zientzia.eus

Antolatzaileak:

Usurbilgo Udalak eta Elhuyar.

Erreferendumaren aldeko sinadurak



Larunbat honetan sinadura gehiago batuko dituzte frontoi inguruan.

Azken asteotan bezala, Gure Eskuko kideak frontoi inguruan izango dira larunbat eguerdian: “12:00-14:00 bi-

tartean, erreferendumaren aldeko sinadurak bilduko ditugu, #HamaikaGara ekimenaren baitan”.

Ezker Abertzalea saretu eta indartzeko zikloa aurkeztu dute

Datorkigun etorkizun hurbilenaz hausnartzeko gonbita luzatzen du Usurbilgo Ezker Abertzaleak, maiatzaren 6an Sutegin aurkeztu zuen “Usurbil astindu. Esna harrapa gaitzala” zikloak. Maiatzetik ekainera deitu dituzten saioen bidez, Sortuk uztaileako iragarritako kongresura begirako prozesua landu eta aipatu moduan, gogoetarako tartea hartu nahi dute. Zikloaren antolakuntza lanetara batu dira Usurbilgo Sortu, Ernai eta Sorturen kongresua prestatzen ari den herriar taldea.

“Usurbil astindu” zikloarekin “Ezker Abertzaleko komunitatea saretu, egituratu, indartu” nahi dute; militantzia ulertzeko ikuspuntu ezberdinak batu; Sortu eta Ernairen



Zikloaren antolakuntza lanetara batu dira Usurbilgo Sortu, Ernai eta Sorturen kongresua prestatzen ari den herriar taldea.

HELBURUA

Ezker Abertzaleko komunitatea saretu, egituratu eta indartu nahi dute

arteko hartuemanak sendotu; edota Aitzaga berregituratu. Herriko tabernarekin batera

elkarte gastronomikoa eta kultur elkarte daude. Ideiak eta jende berria batu nahi dute kultur bilgunearen bueltan, “kultur elkarte berrasmatu”, “Ezker Abertzaletik urtean zehar kultur eskaintza” plazaratzeko. Abian den zikloko saioetako batek hain zuzen gai hau jorratuko du.

“Usurbil astindu. Esna harrapa gaitzala”

Maiatzak 13, osteguna

■ 18:30 “Euskal Herri Langileak. Txanponak bi alde ala po-liedroa?” Sutegin.

■ Hizlaria: Andoni Olariaga.

Maiatzak 22, larunbata

■ 11:00 “Ezker Abertzaleko diagnostikoa eta plan feminista” Sutegin.

■ Hizlaria: Aiora Epelde.

■ Izen ematea aurrez helbide honetan: labur.eus/ce00V

■ Oharrak: aforoa kudeatzeko izen ematea beharrezkoa izango da. Ekitaldien lekuak alda daitezke, halakoetan sare sozialen bidez eta izena emandakoei aurrez jakinaraziko zaie.

■ Antolatzaileak: Sortu eta Ernai.

“Segi dezagun bidean, tontorreraino!”



“Gaur hemen batu garenok elkarbizitzara eta bakera eramango gaituen bidearen parte izan nahi dugu”, adierazi zuten Sareko ordezkariak.



Espetxe politika bidegabekia salatu eta presoek auzia konponbiderantz eramateko Euskal Herriko 650 mendi tontorretara martxak egin ziren Sareko antolatuta maiatzaren 8an. Usurbilen, Andatzara igo ziren bidegile bilakaturiko herriarrek, Mikel Laboa pla-

zatik. “Gaur hemen batu garenok elkarbizitzara eta bakera eramango gaituen bidearen parte izan nahi dugu”, adierazi zuten Sareko ordezkariak, Andatza tontorrean, gainerako mendi gainetan bezala 11:30etan ospatu zen ekitaldiaren baitan plazaratu

zuten adierazpenaren bidez. Ondoko talde argazkia atera, Julio Sotok sortutako bertsoa eta “Ikusi mendizaleak” abestarekin batera, bide horretan urratsak ematera deitu zuten, “auzolan handi honetan parte har dezaten. Gaur mendian batu gara. Bihar herrian. Eta

datozen hilabeteetan, Izan Bidea dinamikaren baitan deituko diren dozenaka dinamikekin. Segi dezagun bidean, tontorreraino!”. Bide horretan urrats gehiago emateko aukera izango da; hurrengo mobilizazioa maiatzeko azken ostiralean.

“Saria irabazi izanagatik sentitu dugun harrotasuna izan da saririk handiena”

Berriki Udarregi Ikastolako DBH4ko lau ikasle sarituak izan dira XXX. Enpresa Ideia Onenaren lehiaketan hirugarren saria irabazita. Ekonomia ikasgaian landutako proiektu bat aurkeztu zuten Deustuko Unibertsitateko ESM Junior Enpresak antolatu eta Donostiako Sustapenak indartutako lehiaketan. Imanol Uribe, Libe Olasagasti, Ekhi Aranburu eta Danel Etxabe izan dira sarituak. Hona NOAUA!ri kontatutakoa sariari eta proiektuari buruz:

NOAUA! XXX. Enpresa Ideia Onenaren lehiaketan hirugarren saria lortu duzue. Zein izan da eman dizueten saria?

Imanol Uribe: Sariaz gain, sari hori irabazi izanagatik sentitu dugun harrotasuna izan da niretzat saririk handiena. Sari materiala ere oso ona da, baina horren guztiaren atzean dagoen izen ona da garrantzitsuena.

Libe Olasagasti: Eman ziguten sari nagusia 400 euroko beka bat izan da Deustun ikasteko, eta horrez gain, bi monitore eta Alexa moduko adimen artifizialeko bi gailu eman zizkiguten. Ikasketekin jarraitzeko materiala da, azken finean. Dena den, finalera iristea eta



Imanol Uribe, Libe Olasagasti, Ekhi Aranburu eta Danel Etxaberen proiektuak Enpresa Ideia Onenaren lehiaketan hirugarren saria eskuratu zuen.

LIBE OLASAGASTI

“Tutu batzuk egitea bururatu zitzaigun janaria gordetzeko. Modu horretara, plastikoaren erabilera murriztea lor daiteke”

hirugarren postua lortzea da guretzat saririk handiena.

Danel Etxabe: Udaletxean egin ziguten harrera eta saria hartzeko egin ziguten ospakizuna ere oso polita izan zen.

Zein izan zen aurkeztu zenuen ideia?

Libe Olasagasti: Ekonomia zirkularra baliatuta sortu behar genuen ideia. Arlo hori kontuan hartuta, tutu batzuk egitea bururatu zitzaigun janaria gordetzeko. Modu horretara, plastikoaren erabilera murriztea lor daiteke. Guk sortutako enpresak lekaleak eskaintzen ditu hodian. Plastikozko paketeak egin beharrean, produktu osoa tutu batean eskuratzeko aukera ematen du horrek. Hodien zerbitzua eskaintzen dugu proiektuan, eskuragarri jarrita, eta azken produktua ere sortzen dugu; eta ez hori bakarrik, etxera ere eramaten ditugu tutuak eta lekaleak.

“50 bat talde zeuden, eta hirugarren geratu ginen”

NOAUA! Zuen enpresa ideiarekin zerbait egingo duzue edo lan horren ibilbidea hemen amaitzen al da?

Libe Olasagasti: Berez ez daukagu pentsatuta beste ezer egiterik ideia honekin. Proiektua aurkeztu eta saria irabazi du, baina ez dugu pentsatu beste inora aurkezterik, ez eta proiektua gauzatzerik ere.

Ekonomia zirkularra

Ekonomiako irakasle Izaskunek proposatutako proiektu bat izan zen, baina hasieratik izan zenuten lehiaketara aurkezteko asmoa?

Imanol Uribe: Ikastetxe asko zeuden izena emanda lehiaketan parte hartzeko eta gu ere sartu egin gintuen Izaskunek. 50 bat talde zeuden, eta hirugarren geratu ginen, beraz, lan txukuna egin genuen seinale. Lehiaketan parte hartu aurretik aurkezpen bat egin genuen gelaren aurrean, eta hori ere kontuan izan zuen Izaskunek. Ekonomia zirkularrari buruzko proiektu bat proposatu zigun, eta hortik abiatuta iritsi gara honaino.

“Epaimahaikoek esan ziguten originala izatea ezinbestekoa zela”

NOAUA! Ekonomia eta enpresaren alorra gustuko al duzue? Etorkizunean unibertsitate ikasketak arlo horretan egitea gustatuko al litzaizueke?

Danel Etxabe: Ni ez nau gehiegi erakartzen alor horrek. Oraindik goiz da jakiteko hemendik bi urtera zer erabakiko dugun, baina Deustura joatea ez da nire ideia nagusia eta ekonomiari lotutako

ikasketak egitea ere ez, printzipioz behintzat.

Ekhi Aranburu: Nik ere ez daukat asmo berezirik arlo horretara hurbiltzeko.

Imanol Uribe: Ezta nik ere.

Libe Olasagasti: Ni erakartzen nau enpresaren mundu horrek. Agian, unibertsitatean bide hori jorratuko dut, bai.

Zein gomendio emango zeniekete datorren urtean lehiaketa

honetan parte har dezaketen ikasleei?

L.O.: Garrantzitsuena originaltasuna da. Epaimahaikoek esan ziguten originala izatea ezinbestekoa zela. Talde askok oso proiektu onak aurkeztu zituzten, baina ez oso originalak eta hori zen haien arazo nagusia. Espainia kontuan izanda, enpresa berritzaile bat izan behar du, orain arte ikusi gabeko zerbait. Beraz, ideia lantzeari

garrantzia ematea da onena, eta behin hori ondo landuta proiektua egitea.

Irakasleak ere kontuan hartuko du sarituak izan zarete-la notak jartzerako orduan, ezta?

L.O.: Saria eman zigutenerako notak jarrita zeuzkan, baina kurtso amaierakoan ere kontuan hartuko duela espero dugu [kar kar kar].

Tximeleta gimnasia taldea: “Pandemiak gure lan egiteko modua aldatu du erabat”

Itxiera perimetralak eragin zuzena izan du sektore askotan. Ondo baino hobeto dakite nolako eromena izan den aldaketa garai hau Itxasne eta Mirene Telleriak, Usurbilgo Tximeleta gimnasia erritmikoko entrenatzaileek.

NOAUA! Ikasturtea hasi zenetik aldaketa asko egin behar izan dituzue, eta azken itxiera perimetralarekin, are eta gehiago.

Itxasne Telleria: Hasieran izugarritzko kaosa izan zen. Urrian hasi ginen gure klaseekin betiko moduan, baina azaroan neurrietan aldaketak izan ziren eta utzi egin behar izan genituen kirol jarduerak.

Mirene Telleria: Garai hartan, astero aldatzen ziren neurriak eta aste batean klaseak egin zitezkeen eta hurrengoan ez. Desastre hutsa.

Dantzak prestatzeko hori arazo handia izango zen, ezta?

I. T.: Erabatekoa. Kursoaren planteamendu osoa aldatu behar izan dugu. Lehen bi hilabeteetan gorputz-lanketa egiten dugu, teknikari garrantzia eman eta gure gimnastak egoera fisiko onenean jartzen saiatzen gara, gero dantzak osatzen hasteko. Teknika lantzeko aparatuak erabili ohi ditugu, aurrerago dantzan erabili beharko dituz-



“Kirola musukoarekin egitea berez zaila bada, pentsa egunerokotasunean eramatera ohituta ez dauden ume txikientzat”.

ITXASNE TELLERIA

“Gimnastek ezin dute euren artean inolako kontakturik izan, ez kontaktu zuzenik, ezta aparatu aldaketarik egin ere”

ten aparatuak puntuan jartzeko. Aurten, ordea, gimnastek

ezin dute euren artean inolako kontakturik izan, ez kontaktu zuzenik, ezta aparatu aldaketarik egin ere. Umeentzat oso aspergarria da horrela lan egin beharra.

M. T.: Bakoitza bere aparatua- rekin, metro eta erdiko distantziara elkarren artean, eta amaitu orduko aparatuak desinfektatzen, horrela eman be-

har izan dugu ikasturte osoa. Gure lan egiteko modua erabat aldatu du egoera honek, eta nahiko urte gogorra izaten ari da, orokorrean. Musukoa ere uneoro jarrita eraman behar dugu, eta ez zaharrenek bakarrik, baita bost urteko umeek ere, nahiz eta berez gainontzean behartuta ez dauden. Kirola musukoarekin egitea berez zaila bada, pentsa egunerokotasunean eramatera ohituta ez dauden ume txikientzat.

Edukiera neurriei dagokienez ere, urteroko ume talde handirik izaterik ez.

I. T.: Talde txikitari jarrita dauzkagu umeak. Bakoitzak bere oihal zatia du gainean lan egin ahal izateko, eta tapizean bere leku propioa. Tapiza zatika antolatuta daukagu haurren artean distantzia egon dadin, eta neurri guztiak behar bezala bete ditzagun. Hasi aurretik, haur bakoitziari tenperatura hartu behar diogu, eta bakoitza bere txokora bidaltzen dugu gero, bertan aldatu behar baitute arropaz ere.

M. T.: Ostegunetan, adibidez, 25 ume dauzkagu eta bi entrenatzaile gara gure lana egiteaz gain, neurri guztiak behar bezala betetzen direla ikuskatzeko. Ezinezkoa da horrela lan egitea.

“HH5etik DBH1era arteko taldeak dauzkagu”

NOAUA! Horrenbeste aldaketa eta neurri berrirekin, izen emateak behera egin du aurretik?

Itxasne Telleria: Ez pentsa. Taldeak mugatuak dira, eta asteazkenetan, adibidez, Mirene HH5ekoekin egoten da,

eta ni LH1ekoekin. Zortzi ume ditu Mirenek, eta nik bost. Ez dira asko, baina bananduta egon behar dute. HH5etik DBH1 arterainoko taldeak dauzkagu, eta LH5 eta LH6an talde asko dauzkagu, gainera. Lau zaharrago ere baditugu ju-

benil eta senior mailan banaka ari direnak.

Mirene Telleria: Ikasturte hasieran batzuek izena eman zuten, baina hasi eta gutxira utzi egin zuten. Aste batean bazegoelako gimnasia, hurrengoan ez, hurrengoan bai,

baina beste modu batera... normala da erabaki hori hartzea.

Bi entrenatzaile gehiago ginen hasieran, eta arrazoi pertsonalengatik utzi egin zuten beste biek, eta guk biok baino ez dugu jarraitzen.

“Infantiletatik hasi eta zaharrenetara arteko lehiaketak egingo dira aurten”

NOAUA! Urteroko torneo eta lehiaketekin zer gertatu da?

Itxasne Telleria: Horretan ere eromena da nagusi. Infantilak berriki gonbidatu dituzte torneo batera, eta online izango omen da. Dantza egiten dutenean, grabatu egingo dugu eta ondoren, bidali egingo dugu bideoa antolatzaileek bideo-muntaia egin dezaten bideo guztiekin. Gero, Internet bidez ikusteko aukera egongo da. Taldekako lehiaketa izango da, baina kontakturik izaterik ez dutenez, bakarka arituko dira dantza bera egiten hainbat gimnasta. Niretzat ere oso zaila da dantza bat horrela sortzea. Gimnasta bakoitzak bere indarrak eta ahuleziak ditu, eta nire lana da bakoitzaren indarrak erakutsi eta ahuleziak lantzea. Bakarkako dantza egiten badute bostek batera desastreago ikusten da, denek ez baitakizkite elementu guztiak behar bezala egiten. Zentzugabekeria galanta da.

Mirene Telleria: Gure kirolaren berezko izaera aldatu egin dute, eta eskaintzen dituen balioak ere ezin ditugu landu. Talde sena piztu eta lan gogorraren ostean emaitzak lortzen direla erakutsi nahi diegu gimnastei, ez amore ematen, eta gauzak nahi bezala ateratzen ez direnean burua altxa eta



“Gure kirolaren berezko izaera aldatu egin dute, eta eskaintzen dituen balioak ere ezin ditugu landu”.

MIRENE TELLERIA

“Talde sena piztu eta lan gogorraren ostean emaitzak lortzen direla erakutsi nahi diegu gimnastei”

aurrera jarraitzen. Hori guztia galdu egin da aurten.

Gazteagoek ere lehiaketan parte hartuko dute?

M. T.: Infantiletatik hasi eta zaharrenetara arteko lehiaketak izango dira aurten. Ni entrenatzaile izateaz gain, gim-

nasta ere banaiz oraindik eta lehiaketan parte hartuko dut. Aste honetan jakin dut bi aste baino ez ditudala dantzak prestatzeko. Aparatu bakararrekin ari nintzen lanean orain arte, lehiaketa bakarra eta aparatua bakarra izango zelakoan, baina bi aparatua izango dira lehiaketa bakarrean. Ez dakit zer egingo dudan, egia esan. Antolaketa aldetik ere kaos bat izaten ari da dena. Azken momentuan korrika eta presaka hartutako erabakia dirudi eta azalpen gutxi eman dizkigute.

I. T.: Hasieran online izango

zela esan ziguten eta maiatza amaieran izango zela, eta aste honetan esan digute hemendik bi astera izango dela, eta zuzeneko izango dela, Tolosan. Ez dakigu nola izango den, txandak egongo diren, ordutegi oso zabala eta aldi berean murriztuarekin... Atzo bidali zidaten mezua lehiaketaren berri emateko, eta jartzen duen bakarra da gimnasten artean kontakturik ezingo dela izan. Mirene eta Izadi baino ez dira joango gure taldetik lehiaketa horretara, eta lasaitzen nau horrek, baina ez dakit zer egingo dugun.

“Haurrentzat garrantzitsua da energia askatzea”

NOAUA! Gimnasta lanetan ere ari zara, Mirene. Nola bizi duzu egoera gimnasta ikuspuntutik?

Mirene Telleria: Nahiko belurtuta nago lehiaketarekiko. Aparatu bakarra ari naiz lantzen, pilota, eta xingola ez dut ia hartu ere egin urte osoan. Joan zen urtean ere xingola egin behar nuen ikas-

turte amaieran, eta pandemia lehertu zenez, ez nuen apenas lantzeko astirik izan. Joan zen urteko dantza berreskuratu beharko dut, eta ahal dudan bezala entrenatu bi aste haue-tan. Mailaketarik ez da egingo, hau da, irabazi edo galdu ez gara ez mailaz igoko, ez mailaz jaitsiko. Beraz, tira, ahal duguna egingo dugu eta kitto.

Usurbilen ikasturte amaieran erakustaldia egin ohi duzue. Zertan da kontu hori aurten?

Itxasne Telleria: Momentuz ez digute horri buruzko ezer esan, baina nik uste ez dela egingo. Tximeleta Klubak koordinatzen ditu kontu horiek eta ez dugu erakustaldia-ri buruzko berririk izan. Hori bai, desinfektatzeko materiala,

oihalak eta pandemiari aurre egiteko behar izan dugun material guztia beraiek bidali ziguten, bai bestelako materiala ere.

M. T.: Buruhaute asko ari gara izaten, baina behintzat gimnasia egin dezakegu. Haurrentzat garrantzitsua da energia askatu eta entrenituta egotea.

Sagardo Egunaren faltan, ez dadila txotx egiteko ohitura galdu

Iaz, pandemia lehertu berri-tan, ez zen Sagardo Egunik izan. Plazan ezin elkartu, jendeak etxean eta etxekoe-kin ospatu zuen bere Sagardo Egun partikularra. Aurtengoak antzeko beharko du izan. Beraz, maiatzaren 23an txotx egizu sagardo botila batekin eta, gustu baduzu, sare sozialetan partekatu. Argazki txukunenak aldizkari honetan jasoko ditugu.

Aurreko asteko aldizkarian aditzera eman zen moduan, aurtengo Sagardo Eguna etxetik ospatzeko deia egin du antolakuntzak. Botilen faltan bazabiltza, eskura dituzu sagardotegietan edota ohiko saltokietan.



Iaz ez zen Sagardo Egunik egin ahal izan. Jendeak etxean ospatu zuen. Askok irudimen handia erakutsi zuten.

**MAIATZAREN 23AN
TXOTX EGIZU
SAGARDO
BOTILA BATEKIN
🍏 🍏 🍏 ETA 🍏 🍏 🍏
SARE SOZIALETAN
PARTEKATU!**

#USURBILGOSAGARDOEGUNA
#SAGARDOEGUNA

**HERRIKO SAGARDOA EROSI
BERTAKO SALTOKIETAN
EDOTA ZUZENEAN
USURBILGO SAGARDOTEGIEI**



“Joan den urteko plana egingo dugu”

Gazteek urte osoan gozoz itxaroten duten eguna izan ohi da. Botatzen aritu nahiz ez, gazteen-tzat ere muzin egin ezinezko zita izaten da urterokoa. Horra Zubietako Eneko Eizagirreraren esperientziak Sagardo Eguna-ban baitan.

NOAUA! Joan zen urtean Sagardo Eguna etxetik ospatzeko deia egin zuten. Nola ospatu zenuen zuk?

Eneko Eizagirre: Goizean jaiki eta NOAUAtik Sagardo Eguneako argazkiak atera eta bidaltzeko proposamena luzatu zenutela ikusi genuen, eta bitan pentsatu gabe alkandora zuria eta zapi urdina jarri eta sagardo botila irekitzera joan nintzen. Amak atera zidan argazki hura, eta NOAUA!ra bidali genuen. Tabernak ireki zituzten lehen asteburua edo bigarrena izan



Enekok eta bere lagunek iazko plana errepikatuko dute aurtengoan.
Argazkia: Lurdes Hueta.

ENEKO EIZAGIRRE

“Trago batzuk hartuko ditugu, lasai bazkaldu eta gero gerokoak”

zen hura, eta aprobetxatu beharra geneukala ikusi genuen. Goizean trago batzuk hartzeko geratu ginen lagunak herrian, eta bazkaltzeko lekua hartuta geneukan Artzabalen eta ho-



rix egin genuen. Arratsaldean ere, tragoak hartzen jarraitu genuen, egunak merezi zuen eta. Eguraldiak ere lagundu zigun eta, tira, urteroko Sagardo Eguna ez, baina beste modu bateko Sagardo Eguna ospatu ahal izan genuen.

Urtero frontoian ospatzen duten horietakoa al zara? Zein da zure urteroko ohitura?

Bai, urteroko zita izaten da

frontoira hurbiltze hori. Ez naiz inoiz sagardoa botatzen aritu, baina goiz osoan atzera eta aurrera aritzen diren horietakoa naiz. Hala ere, gustatuko litzaidake sagardoa botatzen jartzea. Aurten ezinezkoa izango da, baina datorren urterako ez da plan txarra. Sagardo Eguna antolatzen duen taldeak ere laguntza eskatu izan du behin baino gehiagotan, eta horretan ere hasi beharko dugu, agian. Urtebete daukagu oraindik hori guztia ongi pentsatzeko.

Aurtengoa ere ospatu beharko duzu, ezta?

Lagunartean horri buruz hizketan aritu gara aste honetan, eta bazkaltzeko lekua hartu dugu Guria tabernan. Joan zen urteko planaren antzeko zerbait egingo dugula pentsatzen dut, trago batzuk hartu, lasai bazkaldu eta gero gerokoak.

“Beldur pixka bat ematen dit aurtengoak”

NOAUA! Joan zen urtean Sagardo Eguna etxetik ospatzeko deia egin zuten. Nola ospatu zenuen zuk?

Maidar Ruiz: Kale Nagusiaren amaieran hiru eraikuntzatan antolatuta gaude, eta Sagardo Eguna baino lehen konfinamenduan, festa modukoak antolatzen aritu ginen. Sagardo Eguna ezin zuen gutxiago izan, eta eguerdian bakoitzak bere balkoian hamaiketako egin zuen. Bizilagunetako batek trikitixa jotzen du, eta beste batek panderoa, eta horrela aritu ginen giro ederrean bakoitza bere etxean ospatzen. Goiz partean tarteka abestiren bat jotzen zuten, batzuk beraiek asmatuak eta besteak betiko abestiak. Beste bizilagun bat, berriz, bertsotan aritu zen. Bazkaltzerako bakoitzak bere martxa jarraitu zuen, eta arratsaldean ez genuen ezer berezirik egin. Egun polita izan zen, eta eguraldia ere mundiala suertatu zen. Oroitzapen polita dut.



“Egun polita izan zen iazkoa”, azaldu digu Maidar Ruizek.

MAIDER RUIZ

“Kalera atera gaitzek, baina jende asko elkartuko ote den beldurra daukat”

Konfinamenduan ere animoak aterata balkoia izan zenuen lekurik maiteena.

Bai, hasiera batean mozzorro festa bat antolatu genuen, hura izan zen bizilagunen artean antolatu genuen lehen ekintza edo. Ekintza hori ondo joan zen, eta jendea animatu egin zen horrelako gauza gehiago egitera, eta estilo horretako festa gehiago antolatu genituen. Uste baino hobeto eraman ge-

nuen konfinamendua zentzu horretan behintzat, iluntzerako beti izaten genuen planen bat.

Sagardo Eguna itzulita, urtero frontoian ospatzen duten horietakoa zara?

Azkeneko urteetan ez naiz gehigi atera. Haurrak izan nituen, eta ordutik mota horretako planak aldatu egin dira. Lehen-ago nire herriko lagunak gonbidatzen nituen eta hemengo kuadrilakoekin ateratzen ginen frontoira. Batzuetan ogitarteko batzuk jaten genituen bazkaltzeko eta, inoiz elkarteren batera ere joan izan gara bazkaltzera. Haurrak jada handitzen ari zaizkit, eta beraz, laster ea berriz ere parranda pixka bat egiteko aukera dudan.

Aurten nola ospatuko duzu?

Beldur pixka bat ematen dit aurtengoak. Kalera atera gaitzek, eta jende asko elkartuko ote den beldurra badaukat. Baina tira, nik etxetik egingo dut lasai-lasai.

Kartel margoketa amaituta, Aranerreka auzolanean garbituko dute larunbat honetan



Erreken garbitasuna mantentzearen garrantzia aldarrikatzen duten kartelak margotu zituzten frontoira hurbildu ziren familiek.

Haur eta helduen kontzientziazio handiago bat sortzearen, familia eta lagun artean lantzeko ekin-tza egin zuten Anerreka Ingurumen Elkartearen eskutik.

Erreken garbitasuna mantentzearen garrantzia aldarrikatzen duten kartelak margotu zi-

MAIATZAK 15

Larunbat honetarako Aranerreka herritarren artean garbitzeko deia egin dute. Artzabalen batuko dira, 10:00etan

tuzten frontoira hurbildu ziren hainbat familiek. Gogoan izan,

larunbat honetarako (maiatzak 15) Aranerreka herritarren artean garbitzeko deia egin dutela goizeko 10:00etarako.

Kalean botatzen diren hondakin asko ibai-sistemara iristen dira eta bertatik itsasora. Plastikoez ingurumenean duten eragin negatiboaren inguruan hausnartzeko asmoa du ekin-

tzak. Herritarrek kontzientziatu eta egoera hobetzearen, Aranerreka garbitzeko auzolane-rako deia da. Katiuskak jantzi-ta, maiatzaren 15ean goizeko 10:00etan Artzabalen azaldu beharko da. Bukaera hamaitaketa bat eskainiko dute antolatzaileek garbitzera animatzen diren guztientzat.

Arkaitzerreka bizirik eta erraustegia itxita nahi dute



Anerreka Ingurumen Elkartek antolatutako martxa batek Usurbil eta Zubieta lotu zituen Arkaitzerrekarekin.



Erraustegitik isuritako amoniakoak ehunka aingira eta arrain hil zituen 2020ko maiatzean. Hondamendi hartatik urtea bete zen maiatzaren 9an, Anerreka Ingurumen Elkartek antolatutako martxa batek Usurbil eta Zubieta Arkaitzerrekarekin, kaltetutako eremuaren zero gunearekin lotu zituen, "Arkaitzerreka bizirik! Errausgailurik ez!" zioen pankarta-

rekin eta bezperan, frontoian eginiko tailerrean familiek margotutako arrainen muralarekin.

Zutabeak batu zituen Arkaitzerrekan eginiko ekitaldian, "gure esku dagoen guztia egiten jarraitu behar dugu" dei egin zuen Anerreka Ingurumen Elkartek, "hor goian eragiten ari diren kutsadurak sortzen dituen ingurumen kalteak kontrolatzen eta horien emaitzak

publiko egiten, sekula santan martxan jarri behar ez zuten erraustegia gelditu arte!".

Hirugarren isurketa

Arkaitzerrekan jada hiru isurketa izan direla salatu dute. Hirugarrena, duela urtebetekoa "erreka erretzera" iritsi zen, hiru egunez "2.200 metro kubiko errekaratu" ostean. GHK ikertzekoak dira, "erne egon-

go gara", iragarri dute Anerrekatik. Arkaitzerrekako duela urtebeteko hondamendiaz gain, "jada sutea, eztanda, isuriak..." izan ditu erraustegiak, "hauek kanpotik nola edo hala jakitera iritsi garenak, auskalo zer beste gehiago gertatu diren guk ez dakizkigunak eta... etorriko direnak". Egindako kalteak konpondu gabe segitzen duela ohartarazi zuten.

Kiroldegiak udako eskaintza prest du

Helduentzat spinning, pilates, mantenu gimnasia edota aquagym. Haurrentzako, Haur Hezkuntzan edota Lehen Hezkuntzan ikasten ari direnentzako igeriketa ikastaroak iragarri dituzte; LH 1. mailakotik gorako ikasleentzako eskalada eta LHko ziklo osoarentzat Kirol Txokoak. Txoko hauek bi txandatan bideratuko dituzte; lehenengoa, uztailaren 5etik 16ra, bigarrena hilabete berean, hilaren 19tik 30era.



Kirol Txokoak bi txandatan bideratuko dituzte. Lehenengoa, uztailaren 5etik 16ra; bigarrena, uztailaren 19tik 30era.

Bistan denez, uda parte honetarako, uztailerako (uztailak 5-30) hain zuzen, eskaintza zabala iragarri du Usurbilgo Udalak Oiardo Kiroldegian. Eskaintza honetan izen emateko epea zabalik izango du Usurbilgo Udalak, maiatzaren 20ra arte. Inskripzioak online bideratu beharko dira. “Iazko

UDAKO ESKAINTZA “Uztailerako eskaintza zabala iragarri du Udalak Oiardo Kiroldegian”

ereduari jarraituz, interesa dutenek formulario bat bete beharko dute, erabiltzailearen datu pertsonalak eta zein ikas-

tarotan izena eman nahi duen adieraziz. Izena emateko epea amaitzen denean, plaza baino izen-emate gehiago baleude, zozketa egingo litzateke: maiatzaren 21ean egingo da, eta mezu elektronikoko bidez jakinaraziko zaie plaza egokitu zaien edo ez”, ohartarazi du Udalak.

Esther Arrojeria eta Bera Bera taldea, Ligako txapeldunak

Elche taldearen aurka etxean, Donostiako Josean Gascan jokaturako neurketa 30-20 irabazita, Ligako txapelduna da eskubaloitako talde donostiarra zazpigarrenez, eta baita honenbestez, talde kide Esther Arrojeria herritarra. Zorionak!



Esther Arrojeria Bera Bera taldeko kapitainetako bat da.

“Usurbil Suspertu” aholkularitza zerbitzua martxan da berriz

Abian dute berriz “Usurbil Suspertu”, jarduera fisikoaren preskripzio, orientazio eta aholkularitza zerbitzua, Oiardo Kiroldegian. Udal kirol zerbitzuaren, Kiroldegiaren eta Osakidetzaen, kasu honetan, herriko anbulatorioaren eskutik. “Eusko Jaurlaritzak, Osakidetza eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean osatutako programa da”. Egitasmoak sustatzaile duen Usurbilgo Udaletik gogorarazi dutenez, “bitzita aktiboa izateko ohiturak herritarren egunerokoaren par-

te izatea da helburua, kirolak eta jarduera fisikoak pertsonen buru ongizatean zein fisikokan dituen onurak kontuan hartuta”. Covid-19aren eraginez bizi dugun pandemia tarteko, Udaletik ohartarazi dutenez, “Kiroldegian hartuko dituzte herritarrak behin-behinean, anbulatorioan beharrez”. Zerbitzua asterokoa izango da, asteazkeneko eskainiko dute, 9:00-13:00 artean. “Zerbitzua osasun etxeko langileen preskripzioz jasoko dutenei orientatzaileak deituko die,

zuzenean, hitzordua emateko; hitzordua beren kabuz hartu nahi dutenek, berriz, kiroldegira deituta eska dezakete, 943 37 24 98”.

Egitasmoaren funtzionamenduz argibideak ere eskaini ditu Udalak ohar bidez. “Osasun etxeko profesionalak iruditzen bazaie pazienteari kirola edo jarduera fisikoa egitea komeni zaiola, horixe agindu, eta aholkulari horrengana bideratuko dute. Hark, pazientearen bizi ohiturak kontuan izanda, zein ariketa

eta zein maiztasunekin egin ditzakeen aholkatu eta pautak batzuk jarriko dizkio, eta horren jarraipena ere egingo du. Dena den, medikuak aholkatu gabe ere jo daiteke aholkulari horrengana. Lau asterako plan bat definituko dio aholkulariak erabiltzaileari: epe hori pasatuta, harekin bildu, eta tarte horretan izandako kezkak edo eragozpenak elkarbanatuko dituzte. Horiei nola aurre egin ebatzi ostean, hurrengo hilabeteetan zein irizpide jarraitu gomendatuko dio aholkulariak”.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ERAMATEKO!!!

·EGUNEKO MENUA
·KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Usurbilgo Kantu Taldea: “Elkarrekin, bizipoza eraiki behar dugu herrian”

Bildu eta gustukoen duten hori, taldean abestu ezin dabilta pandemia hasieratik. Jabetuko zineten moduan, covid19ak gure bizitza hankaz gora jarri zuenetik Usurbilgo Euskal Kantu Taldea isilik da, halabeharrez, plazara itzultzeko gogo biziz. Jarduna etenda duten garai honetan bildu da NOAA! hamaika urtez herria euskal abestiekin girotu eta kantutzaletasuna, euskaltzaletasuna sustatzen diharduen bilgunearekin.

NOAUA! 2020ko otsaila amaieran entzun genuen azkeneko Usurbilgo Kantu Taldea plazan. Zertan zen bilgunea martxoko konfinamendu agindu hura heldu zenean?

Kantu taldea: Ohiko entseguetan genbiltzan, astelehenero ilusioz elkartuz eta hilean behin kantu-jira burutuz, beste aparteko burutazio zehatzik gabe. Hasiera batean, martxoak 14ko konfinamenduak, bazirudien hamabost bat eguneko epean eragingo zigula eta berriro itzuli egingo ginela. Baina, beste askoren proiektuak bezala, gurea ere, pikuta-



Entseguei berrekiteko, iazko urrian Kantu Taldeak bilkura bat egin zuen Udarregi ikastolan. Ordukoak da argazkia.

KANTU TALDEA

“Zer ginateke ba gizakiok kantuz, dantzaz, musikaz edo antzerkiz, irribarrez elkarrekin erlazionatu gabe?”

ra joan zen. Geroztik, elkarren artean, mezu eta kantu ederrak whatsappetuz eutsi diogu nolabaiteko harremanari.

Talde barruko dinamika etenda dago ordutik. Zer eragin du talde barruan, nahiz herri bizitzan, halako bilgune baten

galerak?

2020ko urriaren 19an, berriro entseguetan hasteko baldintzak bazeudela eta, Udarregi ikastolako patioan bildu ginen batzuk. Hurrengo astelehenean berriro hasteko erabakia hartu genuen. Ordea, gauzak asko okertu ziren egunetik egunera eta ondorioz, bertan behera geratu zen dena. Eten-dura honek, hasteko, taldeko lagunarte ederra haustez gainera, kantuak bakoitzari sortzen dizkion sentimenduen eta emozioen galera suposatu du. Zer ginateke ba gizakiok

kantuz, dantzaz, musikaz edo antzerkiz, irribarrez elkarrekin erlazionatu gabe?

Abesteak osasunerako dakartzan onurak nabarmendu izan dituzue sarritan. Kantua debekatu da pandemian. Nor bere etxean kantuan aritu daiteke, baina zer ekarpen egiten du taldean abesteak?

Kantuan eta gainera taldean izateak, onura emozionalak eta fisikoak dakartza. Umore ona eta animoak altxatzen laguntzen duen ekimen natural bat da kantua. Asko ikertu da kantua onurez baina batzuk aipatzekotan: taldean kantatzeak, kaletik bakoitzak dakartzan arazoak blokeatzeko laguntzen du, arnasketa sakon eta kontrolatua eskatzen du antsietatea arinduz, babes sozialaren eta adiskidetasunaren sentsazioa eskaintzen du isolamendu eta bakardade sentimenduak saihestera bultzatuz, besteak beste. Kantatzea heziketa bat da, memoria lantze bat, ahotsa lantze bat, motibazioa eta taldeak ezartzen digun asistentziaren konpromisoa.

“Jaione Eskuderorekin entseguetan hasteko desiratzen gaude”

NOAUA! Gipuzkoako abesbatzak mobilizatu dira berriki, “Kantuz bai, ixilik ez” aldarri-pean, beste kultur esparruen parean jasaten ari diren diskriminazioa salatu eta segurtasun neurriekin haien jardunera bueltatzea eskatzeko. Ohiko jarduna berreskuratzeko debekua dute. Kantu taldeak egoera beretsuan zarete. Bat egiteko modukoa iruditzen zaizue aldarri hau?

Gure moduko taldeak ez dira abesbatzak, herritar edonork har dezake parte, ez baita abes-

batzetan bezala kantu diziplina zehatzetan oinarritzen. Beraz, esan aldarri horiekin ados gaudela baina ez dugu ikusten (asko arrisku taldekoak gara) halako posizio bat hartzea gure taldean, nahiago dugu itxarotea pandemiaren egoera hobeago batera heldu arte.

Itzuliko al zarete plazara?

Guk uste dugu baietz. Agian lehen baino indar handiagoz gainera. Desiratzen gaude, berriro bildu eta Jaione Eskuderorekin entseguetan hasteko. Berak

esango lukeen bezala: “estutu ipurdia eta altxa ahots hori!”.

Itzulera ezberdin bat irudikatzen al duzue? Aldaketekin, edo lehengoari eutsita?

Guk uste dugu, hasiera batean behintzat, lehen bezalatsu hasiko ginatekeela. Aurreak erakutsiko du zer egin, zer asmatu eta zer amestu.

Pandemia bizitzako alor guztietan eragiten ari da. “Pandemia osteko” egoerara begira, maila emozionalari errepara-

tzen badiogu adibidez, bidelagun ezin lagungarriagoa izan daiteke kantua etorkizunean?

Bai, hori da. Batetik, kantuak elkarren arteko enpatia bat sortzen du, eta bestetik, pandemiak gehiagotu duen eta agerian jarri duen indibidualismo-egoismo hori alde batera uzteko, ezin hobea da taldean kantuan aritzea. Elkarrekin, bizipoza eraiki behar dugu herrian, bide batez, euskal kantuen transmisioa plazaratuz, euskaraz hitz-eginez eta disfrutatuz.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 61627 3785.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisiezaz@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak eginen 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila nabil. Orduka egingo nuke lan. 632557858

Karrozero ofiziala. Txapa eta pintura lanak egiten ditut lan bila nabil. 610346085

BESTELAKOAK

Josteko remalladora Donna 800 salgai. Berria dago, bizipahiru aldiz erabilia soilik. Prezioa: 270 euro. 652 702 237 (Zorione).

Filologia ikasketak ditut, in-

geleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. 660845780 / buchrahajar@outlook.com

Giltza batzuk galdu dira Zumartegi poligonoan, tren geltokiaren inguruan. Giltzen artean da Opel ikurra duen bat. Topatu baduzu jar zaitez harremanetan: 650 488 094.

Sagarrak txikitzeko egurrezko makina bolantearekin salgai. 678082127 (Aitor)

Sukaldeko Ekonomia oso egoera onean saltzen dut, gutxi erabilia. 678082127 (Aitor)

Potxoenea aurreko petrilean, mahaien ondoan, betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Udaltzainetan utzi ditut.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbateretan: 9:00-13:00.

**Aupa Julen!**

Maiatzaren 10ean

9 urte alajaina!

Zorionak eta urte askoan!

Muxuak etxekoan partez!

Goardiako farmaziak

Osteguna 13 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 14 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 15 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 17 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 18 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 19 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 20 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 21 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 22 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 23 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER

Andre Kalea, 48 "Cuevas"

943 55 17 93

Agenda maiatza

14 ostirala

■ **Manu Urbietaren erakusketa** Artzabalen.

15 larunbata

- **Aranerreka garbitzeko auzolanerako deia.** 10:00etan, Artzabal inguruan.
- **Sinadura bilketa** Gure Eskuk mahaia ipiniko du 12:00-14:00ak bitartean frontoi inguruan.
- **Basabi eta Kimu** 19:00etan Sutegin.
- **Manu Urbietaren erakusketa** Artzabalen.

16 igandea

- **18. Laburbira** 19:00etan Sutegin. Sarrera: doan. Izen ematea aurrez usurbilkultura.eus
- **Manu Urbietaren erakusketa** Artzabalen.

Zortzi film labur, Laburbira zirkuituaren eskutik

Euskarazko zortzi film labur ikusteko aukera izango dugu igande honetan, 19:00etatik aurrera Sutegin. Sarrera doan da baina proiektziora joan ahal izateko izena eman beharko da aldez aurretik, usurbilkultura.eus atarian.

Amaieran, solasaldia

Euskaraz ekoizitako zortzi lan ezagutze-ko aukera izango da:

- **Aterpean Ateri** (Ruben Crespo).
- **Nigandik** (Imanol G. Gurrutxaga).
- **Game Over** (Ilune Diaz Pollacino).
- **Ilunabarrean esan** (Xabier Vallina).
- **Babarrun txapelketa** (Andoni Martinez de Madina eta Julen de la Serna).
- **Datsegit** (Aitor Arruti).

Aranerreka garbitzeko auzolanerako deia

“Kalean botatzen diren hondakin asko ibai-sistemara iristen dira eta bertatik itsasora”. Herritarrak kontzientziatu eta egoera hobetzearen, Aranerreka garbitzeko deia luzatu dute. “Ez da ezer eraman behar. Maiatzaren 15ean larunbata, goizeko 10:00etan Artzabalen azaldu eta bukaeran hamaiketako bat eskainiko dugu”.

■ Antolatzailea: Anerreka Elkartea.



Argazkian, “Nire eguneroko maitea” film laburreko pasarte bat.

- **Nire eguneroko maitea** (Eñaut Castagnet, Manex Fuchs, Ximun Fuchs).
- **Agur** (Iñigo Acha Gómez).

Amaieran, “Ilunabarrean esan” film laburraren zuzendari Xabier Vallinarekin solaserako tarte izango dugu.

Basabi taldearen kontzertua Sutegin

Musika klasikoa eta txalaparta bere ohiko eremuetatik kanpo zabaltzeko sortu zen Basabi. Labetik atera berria den ‘Kronos’ lana eskainiko dute larunbatean, 19:00etan Sutegin. Basabiren kontzertuaz gain, Kimu txalaparta taldearen Kimu Berriak ikuskizunaren ale bat ikusteko aukera eskainiko digute Sergio Lamuedrak eta Txomin Dhersek.

■ Antolatzailea: Jexux Artze K. E.

Datozenak

9. Sagastiak Loretan: “Ilargia eta egutegi biodinamikoa”

- Maiatzak 21 ostirala.
- 15:30-18:30, Potxoenean.
- Izen ematea: 943 361 114 alkartasuna.eus / usurbilkultura.eus
- Prezioa: 15 euro.
- Antolatzailea: Alkartasuna baserriaren kooperatiba.

Sagardo Eguna etxetik ospatzeko deia egin dute antolatzaileek

Iaz bezala, bizitzen segitzen dugun osasun krisialdia tarteko, 2021eko maiatzaren 23ko Usurbilgo Sagardo Eguna ere etxetik ospatzeko deia egin du antolakuntzak.

■ Maiatzak 23 igandea.



Iaz banatutako plastikoak ipintzeko deia egin dute antolatzaileek.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUTZIO KOTXEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaia.eus


SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2021

Maiatzak 21, OSTIRALA

ILARGIAREN ERAGINA LANDARE, ZUHAITZ,
ERLE ETA FRUITU ARBOLETAN. EGUTEGI
BIODINAMIKOA

Xabier Akizu.

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenean



SARRERAK: aldez aurretik
usurbilkultura.eus plataforman eta
alkartasuna.eus web orrian.





Jokatu eta asmatu prezioa, baina pasatu gabe!

Parte hartu ezazu **Gourmet produktu-sorta** honen preziora hurbiltzen saiatuz. Honen baliora gehien hurbiltzen denak, pasatu gabe, produktu guztiak irabaziko ditu.



NOLA PARTE HARTU?

- Urbileko doako App-ean
 - Urbileko Bezeroenganako Arreta Gunean.
- Astelehenetik larunbatera 11:00-14:30 eta 16:30-20:30.

Parte-hartze bakarra pertsonako. Maiatzaren 29ra arte. Kontsultatu oinarriak www.urbil.es webgunean.